


BIZIRIK IRTENDAKOEN KOLEKTIBOAK GUTUN IREKIA BIDALI DIO ESPAINIAKO GOBERNUARI

# Gernika «gorriek» bonbardatu zutela gezurtatzeko eskatu diote Madrili

■ Espainiako Gobernuak oraindik ez du zuzendu Francoren erregimenak emandako bertsioa

■ Atzo, 62. urteurrenean, beste bonbardaketa batzuen lekukoeekin batu ziren Gernikakoak

■ Alemaniako Gobernuak eta Condor Legioak beren erantzukizuna aitortu dutela gogorarazi dute



Juan Gutierrez Gernika Gogoratuz elkarteko burua, erdian, bonbardaketaren zenbait lekukorekin batera, atzo Gernikan.

MIKEL MARTINEZ

Erredakzioa / Bilbo

GERNIKA «gorri separatistek» bonbardatu zutela gezurtatzeko eskatu zioten Espainiako Gobernuari bonbardaketatik bizirik irtendako kolektiboko kideek atzo, bonbardaketaren 62. urteurreneko ekitaldi nagusian.

Gernika Gogoratuz erakundeak antolatutako ekitaldian, Espainiako Gobernuari zuzenketa eskatzen dion gutun bat irakurri zuten atzo arratsaldean Gernikako zinema aretoan, eta eskutitza Mariano Raxoi Kultura ministroari bidaltzea erabaki zuten aho batez. Ehun lagun inguru batu ziren aretoan, horietatik berrogeita hamarren bat Gernikako hondamendia bizi izandakoak.

Alemaniako Gobernuak aitortua duela hondamendia erantzukizuna baina Espainiako Gobernuak orduan esandako «gezur beltza» ez duela oraindik zuzendu gogorarazi zuten gutuna-

gutuna

## Kultura ministroari

• Gernikako bonbardaketa bizi izandako hamar lagunek bidali diote gutun hau Mariano Raxoi Espainiako Kultura ministroari.

■ (...) Apirilaren 26 hartan guk denok gauza asko galdu genituen, bai materialki eta bai espiritualki, baina gaitza, handia izan arren, ez zen hor bukatu. Ondoren, gu 'gorri separatista' euskaldunok hondamendi horren egileak izan ginela entzun behar izan genuen. Francoren Gobernuak salatu zuen gure hondamendiaren arduradunak gu izan ginela. Eta ez ziguten utzi hitz egiten.

Gobernu hark gezur beltz hari eusten jarraitu zuen gudaren bukaeraraino. Beste gobernu batzuk Gobernu horri jarraitu zioten, baina batek ere ez du aitortu, guk dakigula, egiatan gertatutakoa. 'Legion Condor' delakoak, gertatutakoaren egileak aitortu du, Alemaniako Gobernuak ere bai, baina Espainiako Gobernuak ez du ezeztu orduan munduan zehar zabaldu zena.

Gauza asko galdu genuen, baina ez dugu konponketa materialik eskatzen. Herria berriro altxa dugu eta konponketa bat baino ez dugu eskatzen. Gobernu espainiar batek gezurra jaurti bazuen, beste Gobernu espainiar batek aldarrika dezala egia, eta Parlamentuak bere egin dezala.

Mendekozaletasunik gabe, gorroto gabe, egiaren maitasunagatik baino ez, orduan hain gogor erasotuak izan ginenok egiten dizugu eskaera.

Eskerrik asko, ministro jauna.

ren sinatzaileek. Bonbardaketari buruzko gezurra Espainiako gobernu batek zabaldu zuenez, zuzenketa Espainiako gobernu batek egin behar duela eta Parlamentuak zuzenketa hori bere egin beharko lukeela argudiatzen dute gutunaren sinatzaileek.

Alemaniako lehendakariak 1997an onartu zuen alemanen erantzukizuna, Gernikako bizi-irtenei bidalitako eskutitz baten bitartez, eta Alemaniako Parlamentuak, hurrengo urtean, bere egin zuen estatuburuaren aitormena.

Gernikako bonbardaketa bizi izan zutenekin batera, Dresden, Pforzheim, Bartzelona eta Castello hirietan izandako bonbardaketen hainbat lekuko ere izan ziren atzoko ekitaldian.

Aurretik, Gernikako hilerian lore eskaintza egin zitzaizkien bonbardaketan hildakoei, urtero apirilaren 26an egin ohi den bezala.

## Pertsona bat hil da Arrigorriagan izandako auto istripuan

■ Igandean beste bi lagun hil ziren bi ezbeharretan

Erredakzioa / Donostia

PERTSONA bat hil zen atzo Arrigorriagan, Bizkaian, izan zen auto istripuan. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, ezbeharra atzo goizaldeko 04:30ak aldera gertatu zen, A-68 autobidean, Arrigorriaga parean.

Ordu horretan, J.L.B.D. 52 urteko orozkorrak gidatzen zuen autoa errepidetik irten zen. Ondoren, osasun zerbitzuak istripua izan zen lekura joan ziren, baina ezin izan zuten ezer egin hura salbatzeko.

J.L.B.D.-k 52 urte zituen eta Orozko herrian bizi zen. Ertzaintzak ikerketa hasi du istripua argitzeko.

## Bi pertsona hil ziren igandean

Bestalde, beste bi lagun hil ziren igandean Euskal Herriko errepedietan izandako ezbeharretan. Istripu bat Berroztegietan izan zen, Araban. Goizeko 08:00ak aldera, auto bat errepidetik irten, eta gidaria hil zen hartutako kolpeen ondorioz. Autoko gidaria 23 urteko gasteiztar bat zen.

Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, gazteak gidatzen zuen autoa errepidetik irten zenean, bazterrean dauden mugarrietako bat jo zuen. Kolpearen ondorioz, irauli eta hainbat buelta eman zituen.

Automobila gidatzen zuen gaztea bertan hil zen, eta harekin zihoan neska zauri arinak egin zituen.

Bestalde, igande gauean beste istripu larri bat gertatu zen Euskal Herriko errepedietan, Nafarroan. Istripua Ukarren izan zen, gaueko 21:30ak aldera.

Ordu horretan, NA-7228-AS matrikulako automobilak Gabriela E.E. 73 urteko emakumea harrapatu zuen, eta, ondorioz, bertan hil zen. Emakumearen gorpua Nafarroako Ospitaleko Institutu Anatomikora eramane zuten.